

INOIZ IKUSI GABEKO AMA
Amets Cañizares Olaizola, 11 urte
Azpeitia

Aretxabaletan, 2005eko abenduaren 10ean

Kaixo ama:

Ni naiz, zure alaba PAKITA. 25 urte igaro dira utzi ninduzunetik. Gogoan al duzu?

Zergatik, ama?

Nik, hemen bizi berri bat gin dut nire guraso ordeekin, edo bueno, nire ustez, nire benetako gurasoekin.

Ama, aita bizi al da?

Hemengo aita, jatorra zela uste izan dut beti, ia oraintsu arte. Egun batean ordea, nire mutil laguna ezagutzera etorri zen gure etxera, eta ingelesa zela jakin zuenean, esan zidan:

– Ingelesa? Ahaztu nitaz!- Ateari izugarrizko danbatekoa emanetz, joan egin zen.

Nik, harriturik, Michael-i, (mutil lagunari) lasai egoteko esan nion.

Orain, pentsatzen jarrita, lehen ere ez ninduen nik nahi bezain ondo tratatzen.

Ama, aita ez bezala, oso-oso jatorra zen, baina duela hiru hilabete hil zen. Ez, hobeto esanda, hil

egin zuten. Kazetaria zen eta mundu guztian barrena ibiltzen zen. Horietako bidaia batean, Palestinara eginiko bidaia hartan, Israelgo soldadu batek bi tiro bota, eta lurrean zerraldo gelditu zen.

Bi arreba ditut, ama. Bata, hogeita bat urtekoa eta bestea hogeita hamarrekoa.

Nik ba al dut anaia-arrebarik?

Ez dizut esan. Nahi al duzu jakin? Hogeita zazpi urte baditut jada. Emakume bat naiz, eta ez zuk utzitako ume txiki hura.

Ahizparik gazteenak, Izar du izena, eta kazetari-tza ikasten ari da. Amari gertatu zitzaiona ez errepikatzea espero dut! Beste ahizpak berriz, Mariak, bi ume ditu eta abokatua da. Aitaren alabarik gus-tukoena izan da beti, baina hori, niri ez zait axola izan sekula.

Nitaz zerbait jakin nahiko duzu... Ez?

Mariak esan zidan, bi urte nituela etorri nintzela hegazkinez Ekuadortik. (Otavalotik) Ni berriz, bizi guztia pentsatzen sekulan ez naizela hegazkinez ibili! Iristean, guraso berriak zeharo harritu omen ziren. Txinatar bat espero omen zuten eta hasieran negar tanta batzuk isuri omen zituzten, baina berehala moldatu ginen elkarrengana. Nire iragana ahaztuz joan nintzen, eta nik ez nekien Ekuadorrekoa nintzenik ere.

Ikastolan, denek arraro begiratzen zidaten. Inoiz ez nuen lagunik izan. Ez, banuen lagun bat, bakarra: Celia. Bera ere Ekuadorretik etorria zen, ez dakit zein herritatik. Biok batera ibiltzen ginen

beti. Baina bere gurasoak banatzean, bere amarekin, beste herri batera joan bizitzera. Orduetik, ikastolan beti bakarrik ibili nintzen.

Eguraldi ona egiten zuen batean, ikastolara oinez joatea bururatu zitzaidan. Nire gelakide Aneri deitu nion telefonoz. Bera ere oinez joaten zenez, elkarrekin joan gintezkeela pentsatu nuen.

– Kaixo Ane, Pakita naiz.

– Pakita! -Ironiaz- Kanpotarra. Nik ez dut atzeritarrekin ibili nahi. Joan zaitez pikutara!

Eskegi egin zuen, eta nik, buru makur, autobusean joatea hobe izango zela pentsatu nuen. Ikasgelan, andereñoa etorri aurretik esan zidan Aitorrek:

– Pakita, ez zaitugu gure gelan nahi! Nazka ematen diguzu. Aj! Aj! Aj!

Denak hasi ziren “Aj, aj, aj...” Ni, negar zotinka kalera joan nintzen. Hamahiru urte edo edukiko nituen. Amari erregutu nion beste ikastola batera joatea nahi nuela eta azkenerako, aldatu ninduen. Ikastola berrian, askoz hobeto moldatu nintzen. Ez ziren hain arrazistak, baina nire ustez, ustelkeria horiek gurasoek sartuko zizkieten buruan, bestela, ederrak zeuden munduan zehar ibiltzeko!

Hemezortzi urterekin, magisteritza ikasten hasi nintzen. Unibertsitatera nindoan egun batean, han ikusi ez nuen ba Ana hura, mutil beltz bati musuka!! Hurbildu eta horrela esan nion:

– Zer Ane, ez al zara gogoratzen esan zenuen hartaz?

– Zer? -Harrokeriaz.

– Atzerritarrekin ez dut ibili nahi...

Hori esatearekin batera, mutilak ihes egin zuen. Gustura asko gelditu nintzen ba ni!! Korrika batean alde egin nuen handik.

Hogei urte nituela iritsi zen maitasuna nire bihotzera. Michel, ingelesa zen eta ez zekien oso ondo euskaraz, baina moldatzen ginen. Bera ere magisteritza ikasten ari zen. Elkarrekin hasi ginen, poz ederrean. Gerora, hogeita hiru urterekin, lehenengo semea iritsi zen, eta oraingoz bakarra. Iñaki izena jarri genion. Asko poztu nintzen, eta une hartan, zutaz gogoratu nintzen. Iñakiri begiratu eta galdera mordo bat etorri zitzaizkidan burura:

Nola izan daiteke hain bihotz gabea hain ume txikia kalean uzteko?

Zer pentsatzen ote zenuen ni uzterakoan?

Zergatik utzi ninduzun?

Zergatik ez didazu gutunik idatzi?

Zergatik mordo bat, zorionez edo zoritxarrez, erantzunik gabeak.

Espero dut bizirik egotea eta erantzutea. Ez zaitut ezagutzen, baina maite zaitut. Inoiz, Otavalotik pasatzen banaiz, bizirik topatuko zaitudalako itxaropenarekin joango naiz. Nik, ez dut itxaropena galdu. Agian, gutun hau ez duzu irakurriko, baina maitasun osoz idatzitakoa da, malkoekin, oroitzapen on eta txarrekin...

Bada ezpada, nire helbidea bidaltzen dizut, inoiz ezagutu ez dudan amaren gutuna jaso ahal izateko.

Pakita Cruz
Arantzazu kalea 12 2.ezk.
20.550. Aretxabaleta
(Gipuzkoa)
Denok bakean bizitzeko asmoz...

Pakita